

Euskara planen bilakaera lan munduan


Evolución de los planes de euskera en el mundo laboral

Enpresetan euskara bultzatzeko HPSk (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) emandako diru-laguntzak, 1997-2009


Urterik urte gero eta gehiago izan dira dirulaguntza jaso duten enpresak, eta gero eta handiagoa izan da administrazioak helburu horretara zuzendutako diru-kopurua. HPSren neurrian ez bada ere, badira enpresetan euskara sustatzeko dirulaguntzak ematen dituzten udalak. Esaterako, Buruntzaldeko Udalek ere urteak daramatzate horretan. Orain "baietz gurean" egitasmoa garatzen ari dira Buruntzaldeko Udalak eskualdeko enpresetan.

Hiru aldi nagusi izan ditu HPSren dirulaguntza lerro honek:

- 1997-1999 bitartean, urtero 100.000 \approx inguru banatu ziren. Enpresen parte-hartzea azkar hazi zen, bi urtetan 13 enpresatik 39ra igoz.
- 2000n argitaratu zen lehen aldiz enpresei berariaz zuzendutako diru-laguntza deialdia. Bost urtetan etengabe goraka joan ziren enpresen partaidetza eta administrazioaren diru-horniketa.



- 2006tik aurrera eman da hazkuntzarik handiena. Urte horretan LanHitz programa-markoa abian jarri zen, euskara sustatzeko herri-administrazioen eta eragile sozioekonomiko pribatuen arteko elkarlana uztartzen zuena.



Enpresetan euskara bultzatzeko HPSk (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutako enpresa kopurua, 1997-2009


1997-2009 bitartean, 285 enpresek jaso dute euskara-plana egiteko diru-laguntza. Enpresa batzuk diseinu fasean gelditu badira ere, gehienek aurrera egin dute, neurri batean ala bestean enpresan euskara-plana inplementatu arte.

Euskara-plana duten enpresetan diharduten langileak 2004-2009*

2004an diruz lagundutako enpresetan, hau da, euskara-plana zuten enpresetan, 16.000 lagunek egiten zuten lan; 2009an, berriz, 24.900ek. Beraz, bost urtetan %53ko hazkundera izan da. Zenbaki horren barruan daude enpresetako langile guztiak, ez bakarrik euskara-planak zuzenean eragiten dien langileak, guztiengan baitu eragina enpresako euskararen erabilera sustatzeak.

Lurraldeari erreparatuta, 1997-2009 bitartean lagundutako enpresen %58 Gipuzkoan kokatuta daude, %36 Bizkaian, eta %5 Araban.

Aktibitate-sektorearen arabera, enpresen erdia baino gehiago (%56) zerbitzu-sektorekoak dira, %43 industriakoak eta %1 lehen sektorekoak.



* 1997-2009 urte bitartean ez dago daturik